

## Iragarpenak Anuncios

### HONDARRIBIAKO UDALA

IRAGARKIA, Hondarribia Hiriko Zuloaga Etxearen birgaiketarako lanen kontratua adjudikatzeko lehiaketari buruzkoa.

5638

### AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

ANUNCIO relativo a concurso para la adjudicación del contrato de obras de rehabilitación de la Casa Zuloaga de la Ciudad de Hondarribia.

5638

## Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

### LEHENDAKARITZA

2596

Azaroaren 20ko 8/1987 LEGEA, Nahitazko Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaiak sorterazteari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak, Nahitazko Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaiak sorterazteari buruzko Azaroaren 20ko 8/1987 Legea onartu duela jakinarazten zaie herritar guztiei. Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet Euskadiko herritar, norbanako eta agintari guztiei.

Gasteiz, 1987.eko Azaroak 20.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

### ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko Autonomia-Estatutua indarrean jarri zenetik hona zortzi urte igaro baldin badira ere, Euskadiko Autonomia-Elkartearen erakuntzarako hainbat alderdi gauzatu gabe gelditzen dira oraindik, horien artean, Administrazio ezberdinek, beste aginte-titulu batzuk egiteratuz egindako jabegokenketen bidezko prezioa zehazteko ardura izango duen ihardutze-saila sortzea helburutako bat dela. Lege eta politika mailako arian-ariango egituraketa hobeaz lortzean datza, Nahitazko Jabegokenketetarako, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde-Epaimahaiak sorterazteari buruzko Lege honen helburua, eta horiek eratzearen oinarri-araua aipatutako Autonomia-Estatutoko 11.a.b) atala dela. Bestalde, Autonomia-Estatutua da, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteak dituen aginteak zehazten dituen, bai legegintza garapenera eta bai, bere eremu barruan, Erresumaren nahitazko jabegokenketekiko oinarritzko legeak betearazteari dagozkionetan ere.

Honako hauek dira Lege honen arau-mailari bide ematen diotenak, alde batetik, Jabegokenketetarako Probitzia-Epaimahaiak izeneko ihardutze-sailtako kideak eta horien jardunbidea arautzen dituen 1954.eko Abenduaren 16ko Nahitazko Jabegokentez Legeak eman diezaiokkeen maila-mugaketa, eta, bestetik, lege-segurtasuna, oinarri-irizpide honek, jabegokenketetarako erakunde hartzen bait du bere neurri eta balio oso-oso.

Lege honek, estatutotikako esandako agintepideez baliatuz, Erresumako Legea Euskadiko Autonomia-Elkarteko lege eta politika-mailako egiturei egokitzea du

### PRESIDENCIA

2596

LEY 8/1987, de 20 de Noviembre, sobre creación de los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi, que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 8/1987, de 20 de Noviembre, sobre creación de los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa. Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de Noviembre de 1987.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

### EXPOSICION DE MOTIVOS

Transcurridos ocho años va desde la promulgación del Estatuto de Autonomía del País Vasco restan aún por materializar aspectos de la institucionalización de la Comunidad Autónoma de Euskadi, uno de cuyos hitos lo constituye la creación del órgano encargado de justipreciar las expropiaciones que, en ejecución de otros diversos títulos competenciales, efectúen las distintas Administraciones. En esta línea de progresiva estructuración jurídico-política, se enmarca el objeto de la presente Ley sobre creación de los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa de Alava, Bizkaia y Guipúzcoa, siendo la norma habilitante de su constitución el artículo 11.1.b) del referido Estatuto de Autonomía quien determina la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo que concierne al desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio, de la legislación básica del Estado en materia de expropiación forzosa.

El rango normativo de la disposición viene aconsejado por la predicable congelación de rango derivada de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de Diciembre de 1954, en cuanto a la regulación de la composición y funcionamiento de los por ella denominados Jurados Provinciales de Expropiación, y en aras de la seguridad jurídica, principio que adquiere toda su dimensión y valor en la institución expropiatoria.

La presente Ley pretende, fundamentalmente, llevar a cabo una acomodación de la Ley estatal a la estructuración jurídico-política de la Comunidad Auto-

funtsezko xede. Epaimahaia izena ematen zaion Administrazio-sail honek, eragingarritasun, bizkortasun eta bidezkotasunez joka dezaneke erabateko nahi sendoa darama barnean Lege honek, bere jardun-eremuaren xedeak, horren garrantzizko izan eta babesa merezi duten balioen gain artezko eragina bait du, adibidez, norbanako-alorreko jabetzaren gain eta herri-mailako jarduna finkatzen duen eta norbanako-alorreko jabetzaren gizarte-egitekoa osatzen duen herri eta gizarte-zuzduktotasunaren gain. Ildo honetan eta aipatu diren oinarri-irizpide horiek erabat betetze-lanari lagundu ahal izateko xedez sortzen da Balio-haztaketarako Euskadiko Batzorde Teknikoa, bere egitekoa, azken baten, Epaimahaien bidezkotasunezko jardura zuzena lortzeko hain beharrezkoak diren balio-haztaketarako erizpide-batasuna izatea dela.

1. *Atala.*- 1. Nahitaezko Jabegokenketetarako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde-Epaimahaien osakera eta horien ihardunbidea arautzea da Lege honen xedea.

2. Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaiek, Eusko Jaurlaritzari atxikitako Administrazio-Sail direnez, bakoitzak duen aginte-eremu barruan, Euskadiko Autonomia Elkarteko jeografiako eremuan sortu eta bertan burutu daitezkeen bidezko prezioekiko zehaztapideez arduratuko dira eta horiekiko ebazpenak emango dituzte.

2. *Atala.*-1. Kondaira-Lurralde bakoitzeko hiriburuan eratuko dira Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaiak. Epaimahaiburu izango den eta dagokion Epaitegiko Lehendakariak izendatuko duen Auzimaisu batek eta honako kide hauek osatuko dute Epaimahai bakoitza:

a) Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, Zuzentza eta Autonomia-Garapenerako Sailean lan egiten duen Lege-lari batek.

b) Dagokion Herri-Arduralaritzako herri-lanari edo akurapen-bidezkoa den goi-mailako teknikari batek; jabegokenketagile den Administrazio-sail agintedunak izendatuko du, jabegokenketaren gai den ondasun edo eskubidearen nolakoaren arabera aldatuko da, eta nolako horri lanbide-gaitasunarekin batera teknika-mailako jakintzarik egokienak egokituko zaizkio.

c) Probintziako Nekazaritza-Bazkundeko ordezkari batek, jabegokenketa landa-mailako ondasunari buruzkoa izan dedinean. Gainontzekoetan, Hiri-alorreko Jabego-Bazkundeko edo Markataritza, Industria eta Itsaske-ta-Bazkundeko ordezkari batek, jabegokenketaren gai diren ondasun edo eskubideen nolakoaren arabera.

d) Dagokion Eskribau-Elkarteak aukera dezan Eskribau batek.

2. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean lan egiten duen Legelari batek egingo du Epaimahai bakoitzeko Idazkaritza, Sail horretako Sailburuak izendatuko duela Idazkaria.

3. *Atala.*-1. Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaiak balioz eratu eta horiek erabakiak hartu ahal izateko, honako hauek izango dira beharrezko, hots, lehen-deialdikoan kide guztiak bertan egotea eta Epaimahaiburua eta bi Epai-Mahaikide bigarren deialdikoan; Kide hauetako bat aurreko ataleko a) edo b) txatalean esandakoa eta bestea atal bereko c) edo d) txatalean esandakoa izango dira.

2. Beren agintepeko diren gaiei gehiengoaren botoz emango diete ebazpena Lurralde-Epaimahaiek, Epaimahaiburuaren botoz ebaztuko direla boto-berdinketak.

noma de Euskadi en ejercicio de la competencia estatutaria citada. Subyace en su espíritu una contundente y decidida pretensión de que este Organismo Administrativo que es el Jurado, actúe bajo premisas de eficacia, celeridad y equidad, dado que el objeto de su actuación incide directamente en valores tan importantes y merecedores de protección como la propiedad privada y la utilidad pública y social que define el actuar público y conforma la función social de aquélla. En tal sentido, al objeto de coadyuvar a la consecución de la plena satisfacción de los principios enumerados, se crea la Comisión Técnica de Valoración de Euskadi, que tiene como finalidad procurar, en último término, una unidad de criterios de valoración, tan necesaria para una certera y equitativa actuación de los Jurados.

*Artículo 1.* 1.- La presente Ley tiene por objeto regular la composición y régimen de funcionamiento de los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa de Alava, Bizkaia y Guipúzcoa.

2. Los Jurados Territoriales de Expropiación, como Organismos Administrativos adscritos al Gobierno Vasco, entenderán y decidirán, dentro del ámbito territorial propio, sobre los expedientes de justiprecio que se produzcan en las expropiaciones que se lleven a cabo en el ámbito geográfico de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 2.* 1.- Los Jurados Territoriales de Expropiación se constituirán en la capital de cada uno de los Territorios Históricos. Cada Jurado estará formado por un Presidente, que lo será el Magistrado que designe el Presidente de la Audiencia correspondiente, y los siguientes vocales:

a) Un Letrado al servicio del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomo del Gobierno Vasco.

b) Un técnico superior, funcionario o contratado, de las Administraciones Públicas correspondientes, designado por el órgano competente de la Administración expropiante y que variará en función de la naturaleza del bien o derecho objeto de la expropiación, ajustando a dicha naturaleza la especialidad profesional con conocimientos técnicos más apropiados.

c) Un representante de la Cámara Agraria Provincial cuando la expropiación se refiera a un bien de naturaleza rústica. En los demás casos, un representante de la Cámara de la Propiedad Urbana o de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación, según la naturaleza de los bienes o derechos objeto de la expropiación.

d) Un Notario de libre designación por el Colegio Notarial correspondiente.

2. Actuará como Secretario de cada Jurado un Letrado al servicio del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente designado por su Consejo.

*Artículo 3.* 1. -Para que los Jurados Territoriales de Expropiación puedan válidamente constituirse y adoptar acuerdos será preciso, en primera convocatoria, la asistencia de todos sus miembros, y en segunda, la del Presidente y dos Vocales, uno de los cuales será el mencionado en el apartado a) o en el b) del artículo anterior, y el otro, el del apartado c) o el d) de dicho artículo.

2. Los Jurados Territoriales decidirán por mayoría de votos sobre los asuntos objeto de su competencia, dirimiendo los empates el voto del Presidente.

3. Epaimahaien administrarritza eta menpeko maila-ko egitekoak, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Lurralde Ordezkaritzei atxikitako langilegoaren kargura egongo dira, beroietan antolatuko direla beharrezko zerbitzuak.

4. *Atala.*- Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaiak, jabeek eta Administraritzak egindako balio-haztaketaren orria ikusi ondoren eta hamabost eguneko gehienezko epearen barruan, jabegokenketaren gai diren ondasun eta eskubideei legokiekkeen prezio zuzenari buruzko erabakia hertsapidez emango dute. Salbuespen gisa, jabegokenketarekiko zehaztapidean auzitan dabil-tzan zuduen garrantzia dela-eta, jabegokenketak hartzen dituen ondasun eta eskubideak, daudeneko lekura joan eta bertatik bertara ikuskatzea beharrezkotzat jo dadinean, epe hori luzatu ahal izango da hogeitamar egunera arte gehienera, Lege honetako bigarren ataleko b) eta c) txataletan aipatzen diren Kideek ikuskatze-lan horretan derrigorrez parte hartu beharko dutela.

5. *Atala.*-1. Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaien erabakiek nahitaez zio eta guztikoak, eta Lurraren eta Hiri-Antolaketarako Jaurpideei buruzko Legearen Eraberritutako Idazkera onartuzko Apirilaren 9ko 1346/1976 Errege-Dekretuak, edo hori ordezkatzeko Autonomia-Elkarteak berak dituen Legeek edo, hala balegokio, nahitaezko jabegokentze-legeak eta erabili beharreko izan daitezkeen legetan agintzen denarekikoan erabilitako balio-haztaketarako irizpideen arrazoiak emanezkoak izan beharko dute.

2. Administrazio-bideari amaiera ematen dion erabaki honen berri, bai jabegokenketa egiten duen Administrazioari eta bai jabeari berari ere emango zaie eta arduralarritza-auzupidetara jo aurretik egin behar den birrabiitze-eskea egin ahal izango da erabaki horren aurka.

3. Erabakia har dadineko eguna izango da, 1954.eko Abenduaren 16ko Nahitaezko Jabegokentze-Legeko 58. atalean esaten den balio-haztaketaren indarririk gabe geldit-zerira iristeko aldiaren lehenengo eguna.

6. *Atala.*-1.- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde-Epaimahaiak, beroietako kidez osatuko den Baloraketar-ako Euskadiko Batzorde Teknikoa sortuko dute, arauz ezar daitezkeen baldintzen arabera. Honako hauek izango dira Batzorde horren egitekoak:

a) Jabegokenketaren gai diren ondasun eta eskubi-deen baloraketa egiteko erabil daitezkeen lege-erizpideak ezartzerakoan eman daitezkeen arazo nagusienak azter-tzea.

b) Herri-Arduralarritza ezberdinen jardunerako be-harrezko diren oharpenak jasotzea, ondasun eta eskubi-deen baloraketetan eragina duten eta, batzutan, balora-ketaren beraren nolakoa zehazten duten legeak erabil-tzeari dagozkionetan hain zuzen.

c) Erizpideen alderaketa egin eta erizpide batera-tuak sortaraztea, ondasun eta eskubideen balio-haztake-ta egin ahal izateko.

d) Administrazioaren jarduna hobetzeko hartu be-harreko erabaki orokorrak eta neurriak buztzea.

2. Baloraketarako Euskadiko Batzorde Teknikoak txosten bat egingo du urtero, eta txostenak ematen duen aldian ihardutze-sail jabegokentzaile gisa jokatu duten Administrarritza bereziki aurkeztuko zaie eta Batzordea-

3. Las funciones administrativas y subalternas de los Jurados estarán a cargo del personal adscrito a las Delegaciones Territoriales del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, en las que se organizarán los servicios necesarios.

*Artículo 4.*- Los Jurados Territoriales de Expropiación, a la vista de las hojas de precio formuladas por los propietarios y por la Administración, decidirán ejecutoriamente sobre el justo precio que corresponda a los bienes y derechos objeto de la expropiación en el plazo máximo de quince días. Excepcionalmente, podrá prorrogarse dicho plazo, hasta un máximo de treinta, cuando la importancia de los intereses en pugna en el expediente expropiatorio aconsejen la inspección personal sobre el terreno de los bienes o derechos expropiables, en la que necesariamente participarán los Vocales señalados en los apartados b) y c) del artículo segundo de esta Ley.

*Artículo 5.* 1.- Las resoluciones de los Jurados Territoriales de Expropiación habrán de ser necesariamente motivadas, razonándose los criterios de valoración seguidos por los mismos en relación con lo dispuesto en el Real Decreto 1346/1976, de 9 de Abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, o legislación propia de la Comunidad Autónoma que lo sustituya o, en su caso, la legislación de expropiación forzosa y cualesquiera disposiciones legales que sean de aplicación.

2. Esta resolución, que se notificará a la Administración expropiante y al expropiado, ultimarà la vía administrativa y contra la misma procederá el recurso contencioso-administrativo, previo el de reposición.

3. La fecha del acuerdo constituirá el término inicial para la caducidad de la valoración establecida en el artículo 58 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de Diciembre de 1954.

*Artículo 6.* 1.- Los Jurados Territoriales de Alava, Bizkaia y Guipúzcoa, constituirán de entre sus miembros, y de acuerdo con los requisitos que se establezcan reglamentariamente, una Comisión Técnica de Valoración de Euskadi encargada de:

a) Analizar las principales cuestiones que se observen en la aplicación de los criterios legales para la valoración de los bienes y derechos objeto de expropiación.

b) Recoger las observaciones precisas para el funcionamiento de las diversas Administraciones Públicas en lo referente a la aplicación de las legislaciones que influyen y en su caso definen las valoraciones de los bienes y derechos.

c) Contrastar y formar criterios uniformes para realizar la tasación de bienes y derechos.

d) Sugerir disposiciones generales y medidas a adoptar para el mejor funcionamiento de la Administración en lo referente al apartado b) anteriormente indicado.

2. La Comisión Técnica de Valoración de Euskadi elaborará anualmente un informe, que se presentará a las diversas Administraciones que hayan actuado como órganos expropiantes en el periodo a que se refiere el informe, en el que se recogerán de manera sintetizada y ordenada, los problemas, observaciones, criterios y

ren lanen gai diren arazo, ohar eta irizpide buzipenak, laburki eta eraz jasoko dira bertan.

3. Baloraketarako Euskadiko Batzorde Teknikariak, atal honetako 1. zenbakian aipatzen diren kideez gainera, ondasun eta eskubideen baloraketekin zerikusirik duten gaitan aitua diren pertsonak ere bere kideen artean sartzeko eskabidea egin ahal izango du; lagun horiek, araubidez ezar dadinaren arabera, Jaurilaritzak aukeratu ditu.

#### GEHIGARRIZKO ERABAKIA

Lege honetan araupetzen diren Jabegokenketarako Lurralde-Epaimahaiak arduratuko dira, Erresumako Arduralaritzarekin batera hori erabaki dadinean. Arduralaritza horrek Euskadiko Autonomia-Elkartearen lurretan egin ditzan jabego-kentzeetatik sor daitezen bidezko prezioei buruzko zehaztapidetez eta horiek erabakiak ere Epaimahai horiek eurek hartuko dituzte.

#### ALDIBATERAKO ERABAKIA

Azaroaren 25eko 292/1986 Dekretoaren babespean sortutako Jabegokenketetarako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Epaimahaietara aurkeztu diren eta ebazpenik jaso ez duten bidezko prezioerikiko zehaztapidetei, Lege honen bidez sortzen diren Lurralde-Epaimahaiak emango diete ebazpena.

#### INDARGABETZE-ERABAKIA

Nahitaezko Jabegokenketetarako Lurralde-Epaimahaiak sortzeari buruzko Azaroaren 25eko 292/1986 Dekretoa, baliogabetuta gelditzen da.

#### AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*— Epaimahaien jardura eta bai Epaimahaietako eta Baloraketetarako Batzorde Teknikoko kideek izan ditzaketen bateraezintasun, zuripide, parte-har-ezin, egun-sari eta ordezkaketei dagozkien gaiak, araudiz araupetuko dira.

*Bigarrena.*— Lege hau, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin egun berean, jarriko da indarrean.

#### EKONOMIA ETA EGITAMUGINTZA-SAILA

2597

Azaroaren 10eko 352/1987 DEKRETUA, Ekonomia-Egitamugintzarako Lantaldeak sortaraziz. (Hutsen zuzenketa).

1987.eko Azaroaren 19ko E.H.A.O.-eko 219. alcan argitaratutako aipatu Dekretuko testuan huts egin dela ohartuta, horri dagokion zuzenketa egiten da ondoren.

5338. orrialdean, gatzelarazko testuko Indargabetzeko Erabaki Bakarrean, honako hau dioenean: «...y cuantas normas canificación para que dicte cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo del presente Decreto.»

Honako hau esan behar du: «...y cuantas normas contravengan lo establecido en le presente Decreto.»

sugerencias que constituyen las materias objeto de los trabajos de la Comisión.

3. La Comisión Técnica de Valoración de Euskadi, además de los indicados en el número 1. de este artículo, podrá solicitar la inclusión entre sus miembros de personas expertas en las materias relacionadas con la valoración de bienes y derechos, que serán designadas por el Gobierno, de acuerdo con lo que se establezca reglamentariamente.

#### DISPOSICION ADICIONAL

Los Jurados Territoriales de Expropiación regulados en la presente Ley entenderán y decidirán sobre los expedientes de justiprecio que se susciten en las expropiaciones que lleve a cabo la Administración del Estado en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi cuando así se acuerde con aquella Administración.

#### DISPOSICION TRANSITORIA

Los expedientes de justiprecio que hayan tenido entrada en los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa de Alava, Bizkaia y Guipúzcoa creados al amparo del Decreto 292/1986, de 25 de Noviembre y que no hayan sido aún resueltos se resolverán por los Jurados Territoriales creados por la presente Ley.

#### DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 292/1986, de 25 de Noviembre, sobre creación de los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Reglamentariamente se regulará el funcionamiento de los Jurados y el régimen de incompatibilidades, excusas, asistencias, dietas y sustituciones de los miembros de los Jurados y de la Comisión Técnica de Valoración.

*Segunda.*— La presente Ley entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

#### DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y PLANIFICACION

2597

DECRETO 352/1987, de 10 de Noviembre, de Creación de los Grupos Funcionales de Planificación Económica. (Corrección de errores).

Advertido error en el texto del citado Decreto, publicado en el B.O.P.V. nº 219, de 19 de Noviembre de 1987, se procede a continuación a la subsanación correspondiente.

En la página 5338, en el texto en el castellano, en la Disposición Derogatoria Unica, donde dice: «... y cuantas normas canificación para que dicte cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo del presente Decreto.»

Debe decir: «... y cuantas normas contravengan lo establecido en el presente Decreto.»